

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2008/06/25.

Ordua: hasiera, 19:30 eta bukaera, 20:40.

Tokia: Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretoa.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: ordinaria.

Día: 25/06/2008.

Hora: comienzo, 19:30 y final, 20:40.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia

Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia

Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAko zinegotzia

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAko zinegotzia

Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia

Iñaki Sanchez Gastañares, EB-BERDEAK

taldeko zinegotzia

Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko zinegotzia

Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko zinegotzia

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, alcalde.

Mikel Alzelai Zulaika

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV

Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV

Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA

Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA

Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK

Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE

Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

Aztergaiak:

1.- Bidezkoa bada, joan den 2008-5-28ko bilkurari dagokion akta onartzea.

ALKATETZA:

2.- Bidezkoa bada, 2008. urterako Udalak ezarri dituen diru-laguntza programak arautzen dituzten oinarri-arauak onartzea.

OGASUNA:

3.- Bidezkoa bada, 2007ko Ondarearen Administrazioaren Kontu Orokorra onartzea.

ALKATETZA:

4.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.

5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Bidezkoa bada, joan den 2008-5-28ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aho batez onartu da aipatu akta.

Orden del Día:

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28-5-2008.

ALCALDIA:

2.- Aprobación, si procede, de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento para el año 2008.

HACIENDA:

3.- Aprobación, si procede, de la Cuenta General de la Administración del Patrimonio 2007.

ALCALDIA:

4.- Dar cuenta de los decretos dictados.

5.- Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 28-5-2008.

Dicha acta es aprobada por unanimidad.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

ALKATETZA:

2.- Bidezkoa bada, 2008. urterako Udalak ezarri dituen diru-laguntza programak arautzen dituzten oinarri-arauak onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza. Diru-laguntzei buruzko estatu mailako Legea onartu zenetik, ezinbestekoa da diru-laguntzak lehiaketa bidez ematea eta horretarako dagozkion oinarriak onartu beharra dago. Kanpoan geratzen dira hitzarmenen bidez arautzen diren diru-laguntzak, diru-laguntza izendunak eta aparteko diru-laguntzak. Udaletxean, lan talde bat eratu da oinarriak egiteko eta batzorde ezberdinetan aztertu dira ere. Dokumentazioa denon esku egon da.

Orain, 2008. urterako prestatu diren diru-laguntzen programak arautzen dituzten oinarriak hasiera batean onar ditzala proposatu zaio Osoko Bilkurari. Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 30 eguneko epean espedienteaz aztertu daiteke eta egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dira.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada edo hasieran onartutako dokumentua aldatzeko proposamenak aurkezten ez badira, oinarriak behin betiko onartutzat emango dira eta haien testu osoa argitaratuko da.

Gaiari buruz eztabaidatu ondoren, aurkeztu diren oinarri espezifikoak banan-banan bozkatzea erabaki da. Bozketaren ondoren, Osoko Bilkurak Legazpiko Udalaren diru-laguntzen programak arautzen dituzten oinarriak hasiera batean onartzea erabaki du. Hauek dira bozketetan eman diren emaitzak:

* Oinarri Orokorrak: aldeko 10 boto eta 3 abstentzio (PSE-EE taldeko bi zinegotziak eta zinegotzi atxiki gabea).

*** EUSKARA:**

- Barnetegiatarako ikastaro trinkoetan zein 100 orduetik gorako ikastaroetarako euskara ikastera, UEUra edo euskararen normalizazioarekin zerikusia duten bestelako uda-ikastaroetara doazen herritarrei diru-laguntzak: Aldeko hamaika boto eta bi abstentzio (2 PSE-EE).

ALCALDIA:

2.- Aprobación, si procede, de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento para el año 2008.

Toma la palabra el Sr. Alcalde. Desde la promulgación de la Ley Estatal de Subvenciones es preciso aprobar unas bases para conceder subvenciones en régimen de concurrencia. Quedan fuera las subvenciones reguladas por convenio, las nominativas y las excepcionales. Existe un Grupo de trabajo en el Ayuntamiento que ha redactado las bases. Además, se han analizado en las diferentes comisiones. La documentación ha estado disponible.

Se propone al Pleno que se aprueben inicialmente las bases reguladoras de los programas de subvenciones para el año 2008. En el plazo de 30 días a partir de la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa podrá examinarse el expediente y presentarse las alegaciones y sugerencias pertinentes.

En caso de que en el citado plazo no se formule ninguna alegación, o no se planteen modificaciones al documento inicialmente aprobado, las bases se estimarán aprobadas con carácter definitivo y se procederá a la publicación del texto íntegro de la misma.

Tras un debate se acuerda votar una por una cada base específica. Tras la votación el Ayuntamiento Pleno acuerda aprobar inicialmente las bases reguladoras de los programas de subvenciones del Ayuntamiento de Legazpi, registrándose las siguientes votaciones:

* Bases Generales: 10 votos a favor y tres abstenciones (dos concejales del PSE-EE y la concejala no adscrita).

*** EUSKARA:**

- Gastos de aprendizaje del euskara en internado, bien en cursos intensivos bien en cursos de más 100 horas, y participación en cursos de UEU o cursos de verano relacionados con la normalización del euskara. 11 votos a favor y dos abstenciones (2 PSE-EE).

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

- Errotuluak, irudi korporatiboa eta Web gunea euskaraz jartzen dituztenei diru-laguntzak: Aldeko hamar boto eta 3 abstentzio (Bi PSE-EE eta atxikigabeko zinegotzia)

- Irakaskuntza arautuaren eremuan diharduten ikastetxeetan barruko hizkuntza paisaia euskara hutsean izan dadin diru-laguntzak: Aldeko hamar boto eta 3 abstentzio (bi PSE-EE eta atxikigabeko zinegotzia)

- Herrian, teknologia berrietan euskararen normalizazioaren alorrean diharduten elkarteei diru-laguntzak: Aho batez onartu dira.

- Herrian zabalkundea duten euskarazko komunikabideei dirulaguntzak: Aho batez onartu dira.

*** KULTURA**

- Kultura elkarteei urteko egitarauak edo/eta ekintza bereziak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarri espezifikokoak. Guztion aho batez onartu dira.

*** GIZARTE ZERBITZUAK.**

- Legazpin, beraien jarduera gizarte zerbitzuen alorrean garatuko duten elkarteei diru-laguntzak emateko oinarri espezifikokoak. Aldeko 9 boto eta 4 abstentzio (EAko hiru eta atxiki gabeko zinegotziarena).

- Nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak emateko oinarri espezifikokoak. Guztion aho batez onartu dira.

- Udal tasa eta prezio publiko ordaintzeko laguntzak emateko oinarri espezifikokoak. Guztion aho batez onartu dira.

- Droga-menpekotasunen, beste menpekotasun psikologikoen tratamendurako eta nerabeen arrisku egoerak konpontzeko NORBERA programan parte hartzen dutenen diru-laguntza ekonomikoak erregulatzen dituzten arau espezifikokoak. Aho batez onartu dira.

- Espetxeetan preso dauden senideentzat garraioko banakako diru-laguntzak arautzen duten oinarri arau espezifikokoak. Aldeko 10 boto eta kontrako hiru (PSE-EE bi boto eta bat atxiki

- Subvenciones para ofrecer en euskera la rotulación exterior, imagen corporativa y página Web. Diez votos a favor y 3 abstenciones (Dos del PSE-EE y una de la concejala no adscrita.)

- Subvenciones destinadas a garantizar que el paisaje lingüístico de los centros docentes que actúan en el ámbito de la enseñanza reglada sean únicamente en euskara. Diez votos a favor y 3 abstenciones (Dos del PSE-EE y una de la concejala no adscrita.)

- Subvenciones a las asociaciones de Legazpi que tengan como objetivo promocionar el uso del euskara en las nuevas tecnologías. Se aprueban por unanimidad.

- Subvenciones a los medios de comunicación en euskara que tengan difusión a nivel municipal. Se aprueban por unanimidad.

*** CULTURA**

- Bases específicas de concesión de subvenciones para realización de programas anuales y/o programas especiales para las diferentes asociaciones culturales. Se aprueban por unanimidad.

*** SERVICIOS SOCIALES**

- Bases específicas para la concesión de subvenciones a asociaciones que desarrollen su actividad en el ámbito de los servicios sociales en Legazpi. 9 votos a favor y 4 abstenciones (3 de EA y una de la concejala no adscrita).

- Bases específicas para la concesión de subvenciones para la Cooperación Internacional. Se aprueban por unanimidad.

- Bases específicas para la concesión de ayudas económicas para el pago de tasa y precios públicos municipales. Se aprueban por unanimidad.

- Bases específicas para la concesión de ayudas económicas para acudir a tratamiento de drogodependencias, otras adicciones psicológicas y situaciones de riesgo de adolescentes que acudan al programa NORBERA. Se aprueban por unanimidad.

- Bases específicas que regulan la concesión de ayudas individuales de transporte para familiares

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

gabeko zinegotziarena).

*** KIROL SAILA**

- Ohiko kirol jarduera burutzeko diru-laguntzak emateko oinarri espezifikokoak. Aldeko hamabi boto eta PSE-EE taldeko Jose Morcillo zinegotziaren abstentzioa.

OGASUNA:

3.- Bidezkoa bada, 2007ko Ondarearen Administrazioaren Kontu Orokorra onartzea.

Alkate jaunak kontu-hartzaileari eman dio hitza eta hark kontu orokorraren berri eman du. Gaia aztertu den batzordeak ere aipatu ditu. Txertatutako kredituei dagokienez, Udalari dagokion kitapena adierazi du eta geldikinaren berri eman du. Erabakitze dago geldikin hori zertarako erabiliko den.

Segidan, Kirol Patronatua eta Euskaltegia aipatu dira.

Herrigintza Sozietate Publikoari buruz hitz egin du ondoren eta hainbat saldo ez datozela Udalaren saldoekin bat azpimarratu du. Bestetik, gai horren gainean hainbat txosten egin dituela zehaztu du. Osoko Bilkurak diferentzia horien berri izan behar duela uste du.

Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza eta geldikinari dagokionez aldeko botoa emango dutela jakinarazi du. Hala ere, egiaztatuta geratu dela esan du 2007an gastua ez dela behar bezala egin.

Segidan, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Hasteko, kontuaren espedienteari kontu-hartzaileak egin duen txosten bat erantsi zaiola esan du. Txosten horretan, kontu-hartzaileak kudeaketa finantzarioan eta kontablean antzeman diren irregulartasunen eta horien ondorioen berri eman du. Aipatu ondorio horiek bitan laburtzen dira: batetik enpresa deskapitalizatu egin behar da Herrigintza sozietateak Udalari eskaini dion zerbitzu batengatik Udalak Herrigintzari zor dion diru-kopurua ordaindu ahal izateko; bestetik, erabakiko den bidea erabiliz, Herrigintza sozietateari dirua eman behar zaio, joan den 2005ean sorrarazi zen BEZa ordaindu ahal izateko. Orain urte hartan zor zen BEZ horrek errekarquak, interesak eta santzioak sortu ditu

de personas en régimen penitenciario. 10 votos a favor y 3 en contra (dos del PSE-EE y una de la concejala no adscrita).

*** AREA DE DEPORTES**

- Bases específicas para la concesión de subvenciones a actividades deportivas ordinarias. Se aprueban con doce votos a favor y una abstención (La del concejal del PSE-EE José Morcillo).

HACIENDA:

3.- Aprobación, si procede, de la Cuenta General de la Administración del Patrimonio 2007.

El Alcalde cede la palabra al interventor quien da cuenta de la cuenta general. Hace mención a las comisiones donde se trató este tema. Explica la liquidación correspondiente al Ayuntamiento y su remanente, con los créditos de incorporación. Queda por definir el destino de grueso del remanente.

A continuación hace referencia al Patronato de Deportes y al Euskaltegi.

Hace especial hincapié en la Sociedad Pública Herrigintza, haciendo mención a unos informes redactados por él sobre ciertas disparidades en la conciliación de saldos con el Ayuntamiento, el Pleno ha de conocer estas diferencias.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga, votarán a favor pero en relación al remanente, se demuestra que la ejecución del gasto en 2007 no ha sido buena.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. Comienza diciendo que al expediente de la cuenta se ha adjuntado un informe del interventor, en relación con una serie de irregularidades que se han registrado en la gestión financiera y contable de la sociedad así como sus consecuencias. Las consecuencias se reducen a dos: Hay que descapitalizar la empresa para pagar la deuda que el Ayuntamiento tiene con Herrigintza por el servicio que Herrigintza ha hecho al Ayuntamiento; y hay que insuflar dinero a Herrigintza por la vía que se decida, para pagar un IVA que se devengó en el

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

eta une honetan dagoen zorra 500.000 euro ingurukoa da. Ezker Batua taldeak zor hori ordaindu egin behar dela uste du eta norbaitek ordaindu behar ez dela pentsatzen badu, esan dezala.

Hala ere, gogora ekarri du joan den 2005eko otsailaren 18an egin zen Osoko Bilkura. Bertan, Oscar Murillo zinegotziak eskari bat egin zuen: lurzoru publikoa salmenta libreko etxebizitzak eraikitzeko erabili bazen, modu batera edo bestera konpentsatzea eskatu zuen. Orduan Ogasun saileko zinegotzi-arduraduna zenak salmenta libreko etxebizitzak saltzetik lortutako etekinei eta primerako kudeaketari esker, udalerrirako ekipamenduak lortu zirela eta horrek ez ziola Udalari kosturik suposatu erantzun zuen. Bere ustez, kudeaketa hura ez zen inondik inora primerakoa izan. Baina Udalari zero euro kostatu zaiola esatea gezurra zen lehen eta gezurra da orain.

Hemen erabaki okerrak hartu dira eta ez dira hainbat aldagai kontuan hartu: hainbat ondasunen jabari publikoaren baldintza; kudeatzeko aukeratu zen sistema ez zen sistema egokiena eta horrela esan dute jakintsuek, kapitala gehitzea ez zen egokiena, horrela esan zen eta kontuz ibiltzeko esan zen.

Eta arduragabekeri larriak eman dira. Garbi dago: Udalari bidalitako milioi euroko fakturak eta Udalak berak ez dakiela ezer.

Nola kudeatu dira gai horretan IZARTU programako laguntzak? Herrigintzak diru-laguntza horiek berriz itzultzekoak zirela ulertu zuen, hau da, Herrigintzak Udalari itzultzekoak. Baina kontuhartzailearen txosten osagarrian 155.000 euroko diru-laguntza bat Herrigintzak Udalari ordaindu behar zizkion interesak konpentsatzeko erabili direla irakur daiteke.

Administrazio-kontseiluaren bilera batean, Herrigintzako kontuak ikuskatzen zituen Gorostidi jauna zegoen bilera batean, 2003ko kontuetan Herrigintzak Udalari 327.000 euroko zorra zuela ageri zen galdetu nuen eta, aldiz, zor zen saldo horren faktura 2005ean egin zen, zer da gertatu dena?

año 2005, y que ahora entre recargos, intereses y sanciones y demás estamos hablando de alrededor 500.000 euros. Desde luego Ezker Batua cree que hay que pagarlos. Si alguien entiende que no es así, que lo diga.

No obstante, rememora la sesión plenaria de 18 de febrero de 2005, en la que Óscar Murillo presentó una moción en la que se decía que si se había utilizado suelo público para construcción de vivienda libre, por lo menos que se compensara de alguna manera. El entonces concejal de Hacienda contestó que con los beneficios de la venta de las viviendas libres y una gestión impecable, se han obtenido unos equipamientos para el municipio a coste cero para el Ayuntamiento. A su juicio la gestión de impecable no tiene nada. Pero es que lo del coste cero es un dato falso ahora y entonces.

Aquí se han tomado unas decisiones desacertadas, no se han tenido en cuenta una serie de variables: la condición de dominio público de ciertos bienes; la opción de gestión que se eligió no era la más idónea, lo han dicho los expertos, la utilización de la ampliación de capital no era lo idóneo y así se dijo y se avisó que se tuviera cuidado.

Y han ocurrido negligencias graves. Es evidente: facturas al Ayuntamiento de millones de euros que el propio Ayuntamiento desconoce.

¿Cómo se han gestionado en este tema las ayudas del IZARTU? Herrigintza consideró estas subvenciones como reintegrables, es decir, nos las devolvía Herrigintza al Ayuntamiento, pero resulta que en el informe complementario del interventor se dice que una subvención de 155.000 se utiliza para compensar unos intereses que tenía que pagar Herrigintza al Ayuntamiento.

En uno de los Consejos de Administración en la que estaba presente el auditor de la cuentas de Herrigintza, el Sr. Gorostidi, le pregunté si en el año 2003 hay un saldo deudor de unos 327.000 euros de Herrigintza al Ayuntamiento, sin embargo la factura de ese saldo deudor se emite en el año 2005 ¿qué ha ocurrido?

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

Bestelako erabakiak har zitezkeen; erantzukizun bat dago. Ezker Batua-Berdeak taldeak arretaz aztertuko du gaia eta ez du ezer baztertzen. Herrigintza hainbat eremu bultzatzeko erabiltzearen alde egiten dugu, hala nola, Brinkola, Pisuzahar,... eta Herrigintzak etxebizitza publikoa sustatzeari ekin diezaiola bultzatzen dugu. Beraz, abstenitu egingo dela esan du baina horrek ez du esan nahi kontu-hartzaileak proposatutako neurrien alde egiten ez duenik.

Jarraian Jose Morcillo zinegotziak hartu du hitza. Egia da bere taldeak uneren batean Herrigintzaren kudeaketa ez zela egokiena ikusi duela. Kontu orokorrari dagokionez, badirudi eraman den kudeaketa ekonomikoa ez dela egokiena izan. Abstenitu egingo dira.

Juan Ramon Larraña jaunak Herrigintzaren kudeaketa apartekoa izan dela erantzun du. Aho batez lortu da ingurune hau osatu duten obrak egitea, horretarako kapitala gehitzen; hau da, bertan zegoen orubearen balioa Herrigintzara pasatu zen, Herrigintzak obra guztiak egin ditu eta orain berriro kapitala kentzeko ordua iritsi da. Azken finean, lehen kapital gabe zegoen eta orain egoera berdiner a bueltatuko litzateke, hurrengo jarduketari ekin arte. Azkenik, argi eta garbi utzi nahi du kontu-hartzaileak egin duen txostenean Udalaren betebeharrak fiskaletan ez dagoela irregulartasunik irakur daitekeela eta segidan udal inbentarioaren arduraduna nor den galdetu dio Idazkari jaunari, txostenean inbentarioan irregulartasunak daudela esaten baita. Idazkari jaunak inbentarioaren arduradun legala idazkaria bera dela erantzun dio eta Juan Ramon Larraña jaunak orduan idazkari nor zegoen denok dakigula esanez bukatu du.

Segidan Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta aldeko botoa emango dutela esan du. Guztiz garbi utzi behar da, inolako zalantzarik gabe, bai Osoko Bilkura honetan eta bai legazpiar guztien aurrean, Herrigintzako Kontuak zuzenak direla. Eta kalean hainbat gai edo arazorik buruz zein arinki hitz egiten den salatu nahi dut hemendik: kalean Herrigintzari buruz eta bertan izan den ustezko "iruzurrari" buruz galdetu didate. Hemen ez dago iruzurrik eta ez dago horrela hitz egiteko eskubiderik. Hemen inork ez du bere poltsikora euro bat ere eraman. Eta horrela diot inongo dudarik egon ez dadin.

Se podían haber tomado otras decisiones, hay una responsabilidad. Desde luego Ezker Batua Berdeak va analizar este tema con detenimiento y no descartan nada. Ahora bien, apostamos por utilizar Herrigintza para impulsar determinados ámbitos (Brinkola, Pisuzahar,..) y que se dedique a la promoción de vivienda pública. En conclusión, se van a abstener, no quiere decir que no apoyen las medidas propuestas por el interventor.

Toma la palabra José Morcillo. Es verdad que en algún año su grupo ha visto que la gestión en Herrigintza no era la más adecuada. Respecto a la cuenta general, desde su punto de vista la gestión económica tampoco ha sido la más adecuada. Se van a abstener.

Replica Juan Ramón Larraña que la gestión de Herrigintza si ha sido impecable, se ha conseguido, por unanimidad, ejecutar unas obras que es todo este entorno, a través de una ampliación de capital, es decir, pasando el valor del solar que había a Herrigintza, Herrigintza ha realizado todas las obras y ahora corresponde volver a quitarle el capital. En definitiva, antes estaba sin capital y ahora volvería a estarlo, hasta que se decida otra actuación. Por último, quiere que quede claro que en el informe del interventor se dice que no se ha encontrado ninguna anomalía en las obligaciones fiscales y pide al Secretario que diga quien es el responsable del inventario municipal, porque en el informe se dice que hay anomalías en el inventario. El Secretario contesta que el responsable legal del inventario es el propio secretario, y Juan Ramón Larraña concluye diciendo que todos sabemos quien estaba de secretario.

Toma la palabra Ane Urkiola, votarán a favor. Hay que dejar bien claro, sin ninguna duda, en este Pleno y ante todos los legazpiarras que las Cuentas de Herrigintza son correctas. Y aprovecho para denunciar la ligereza con que en la calle se adjetivan determinadas cuestiones o problemas que han surgido, me refiero concretamente, al tema de la regularización del IVA. A mí me han venido preguntando por el supuesto "pufo que ha salido en Herrigintza". No se puede hablar así. Nadie se ha llevado aquí un euro público al bolsillo. Y lo digo así para que no haya ninguna duda.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

Herrigintza SA sozietatearen 2007. urteko kontuen fiskalizazio txostenean udal kontu-hartzaileak esandakoa onesten du, baina egia da saldoen kontziliazioan ezadostasunak daudela Udaletxearen eta Herrigintzaren balantzeen eta egoera kontableen artean.

Ez dakigu desadostasun hori sorrarazi dituzten arrazoiak, baina bi erakundeen arteko harremanetan beharrezko zorrozatasuna egon ez dela pentsatu nahi dugu.

Eta zorroztasun horren ezaren adibidea da, Herrigintza SA sozietateak Udaletxeari jiratutako bi fakturen ez iristea, Foru Ogasunari BEZA ordaintzeko.

Guztiok dakigu faktura horiek eman zirenetik BEZaren ordainketa negoziatzeko asmoa zegoela, eta horrela agertzen da Herrigintzako Administrazio Kontseiluko 2007ko martxoaren 27ko aktan, eta bertan Kontseiluak "etorkizunean eta udal parte hartzearekin beste jarduera berriak ematen direnean egoera hau zuzentzea" adosten du.

Kontu-hartzailearen txostena ikusirik, non aipatutako Kontseiluaren 2007ko martxoko akordio hori gauzatzea ezinbestekoa izan dela jaso den, gure taldea irekita dago Foru Ogasunarekin zorra kitatzeko dagokion kreditu-aldaketa egiteko proposamenera.

Gure taldea Herrigintzako Administrazio Kontseiluko parte izan da eta da gaur egun, sortu diren desadostasunak gainditu eta Sozietate horren kudeaketa ona eta zuzena errebindikatzeko; azkenik, udaletxearen eta Herrigintzaren arteko harremanak hobetzeko sor daitezkeen ekimen guztien alde egingo dugu.

Segidan, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Udalak Herrigintza sozietatea lehen kudeatzen zuten kudeatzaileei eskatu zaizkien paper guztiak bost pakete desberdinetan jaso dira eta bi hilabete itxoin behar izan du Udalak eskatutako guztia jasotzeko. Administrazio Kontseiluko aktei dagokienez, bera kontseiluko idazkari izan arren ez duela akta bat bera ere esan du. Bestetik, aurreko kudeatzailearen minutari dagokienez, kontratua eskatu zen eta kudeatzaileak ez zuela kontraturik azaldu zuen; dirudienez, azkeneko

En el informe de fiscalización de las cuentas anuales 2007 de Herrigintza S.A. el interventor municipal refrenda lo anteriormente señalado, si bien es verdad que en la conciliación de saldos, existen discrepancias entre los balances y estados contables del Ayuntamiento y de Herrigintza S.A.

Desconocemos los motivos que han generado estas discrepancias, pero queremos suponer que ha faltado el rigor necesario en las relaciones de ambas entidades.

Como muestra de esta falta de rigor, ignoramos el motivo por el que a la intervención municipal, no han llegado dos facturas giradas por Herrigintza S.A. al Ayuntamiento para el abono del IVA a la Hacienda Foral.

Es de todo conocido que desde la fecha de emisión de estas facturas, era de interés negociar en lo posible el abono del IVA, y así consta ya en Acta del Consejo de Herrigintza de marzo de 2007 donde el Consejo "acuerda que la situación se regularice cuando, con intervención municipal, se realicen nuevas actuaciones."

A la vista del informe del interventor, donde se recoge la imposibilidad de ejecutar el acuerdo del Consejo de marzo de 2007, este Grupo Municipal está abierto a la Modificación de Crédito correspondiente para abonar la deuda a la Hacienda Foral.

Nuestro grupo ha sido y es miembro del Consejo de Administración de Herrigintza y reivindicamos la buena y correcta gestión de esta Sociedad, a pesar de las discrepancias surgidas, y apoyaremos todas las iniciativas que se propongan para mejorar el rigor en las relaciones entre Ayuntamiento y Herrigintza S.A.

Toma la palabra Erramun Uribeetxeberria. Todos los papeles que se han requerido por parte del Ayuntamiento a los gestores anteriores de Herrigintza, se nos han entregado en cinco paquetes diferentes, tardando dos meses en entregarnos lo pedido. Todo han sido barreras. Respecto a las actas del Consejo de Administración, él como secretario del consejo no tiene ninguna. Y como dato, respecto a la minuta del anterior gestor, se requirió su contrato, y él contestó que no tiene ningún contrato y es un

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

Administrazio Kontseiluan hartutako erabakia zen. Inork ez daki aktak non dauden.

Juan Ramon Larrañaga jaunak berari inork ez diola ezer galdetu erantzun du. Aktak artxiboan daude, han dago Herrigintzako dokumentazio osoa.

Jarraian, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Datuak faltsuak dira, gezurra esaten ari da. Herrigintza sozietateak kapitalik ez zuela esan da baina 2002ko kapital-gehikuntza baino lehen Herrigintza sozietateak milioi euro eta gehiagoko kapitala zuen. Kapitala gehitu ondoren bere kapitala 3.429.976,05 eurokoa izatera iritsi zen eta horiek galdu egingo ditugu Udalak kudeaketa horrek sortu duen zorra ordaindu egin behar duelako.

500.000 euroko zor bat dago joan den 2005. urtean aurreko arduradunek betebeharriskalak ez betetzea erabaki zutelako, Ogasunean BEZaren dagokion aitorpena ez aurkeztuz. Inbentarioari dagokionez, ondasun horiek Jabego-Erregistroan bere sinadurarekin bakarrik inskribatu zirela ekarri du gogora eta Ogasun saileko zinegotzi gisa hura eguneratzeko partida bat ezarri zuen.

Gogora ekarri du zein zen egin zen proposamena: jabego publikoko plazaren, Arkupearen, pilotalekuaren eta erabilera anitzeko eraikinaren gainean lurrazal-eskubide bat eratzea, ondasun horiek Herrigintza SA sozietatearen izenean egon zitezten; ondoren sozietateak Legazpiko Udalarari alokairuan emango lizkioke ondasun horiek eta modu horretan BEZA itzultzea lortuko zen. Ogasunari iruzur egiteko legez kontrako jarduketara proposatu zen. Berak jabego publikoko ondasunaren gainean lurrazal-eskubidea eratzea legez kontrakoa zela esan zuen.

Juan Ramon Larrañaga zinegotziak legala edo legez kontrakoa zer denari buruz, interpretazio asko daudela erantzun du eta egiaztatuta geratu da Sanchez jaunaren interpretazioak ez direla beti zuzenak izan eta horrela ikusi ahal izan da hainbat erabaki juridikoetan. Egitea proposatu zen operazio horren berri zuen eta legezkoa zen esan dezala eskatu dio kontu-hartzaileari. Kontu-hartzaileak ez zela zehaztu erantzun du eta Larrañaga

acuerdo que se tomó en el último Consejo de Administración. Nadie sabe donde están las actas.

Replica Juan Ramón Larrañaga, a él nadie le ha preguntado nada y las actas están en el archivo, ahí está toda la documentación.

Toma la palabra Iñaki Sánchez. Los datos que se dicen son falsos, se miente. Dicen que Herrigintza no tenía capital, pero antes de la ampliación de capital del año 2002 Herrigintza tenía un capital de millón y pico de euros. Con la ampliación de capital su capital es de 3.429.976,05 euros, y los vamos a perder, porque el Ayuntamiento tiene que pagar las deudas que esta gestión le ha provocado.

Hay una deuda de unos 500.000 euros porque en el año 2005 los responsables anteriores decidieron no cumplir con sus obligaciones fiscales, no presentando la correspondiente declaración de IVA en Hacienda. Sobre el inventario, recuerda que los bienes en cuestión se inscribieron en el Registro de la Propiedad con su única firma y que como Concejal de Hacienda dotó una partida para su actualización.

Recuerda que proponían que sobre la plaza pública, el Arkupe, el Frontón, el edificio multiusos, bienes de dominio público, se constituyera un derecho de superficie, para que esos bienes estuvieran a nombre de Herrigintza. S.A. que a su vez se los iba a alquilar al Ayuntamiento de Legazpi, consiguiendo devoluciones de IVA. Se propone una ilegalidad para defraudar a Hacienda. Él dijo que era completamente ilegal constituir un derecho de superficie sobre un bien de dominio público.

Replica Juan Ramón Larrañaga que sobre lo legal o ilegal hay muchas interpretaciones, y se ha demostrado que las interpretaciones del Sr. Sánchez no siempre han sido las correctas, de hecho, dice que hay acuerdos jurídicos que avalan esa vía. Solicita al interventor que diga si tenía conocimiento de la operación que se iba a hacer y si se ajustaba a la legalidad o no. Éste contesta que no se concretó nada, a lo que añade el Sr. Larrañaga que no se concretó nada por que el Secretario en su día hizo el registro que hizo sin contar con nadie, lo

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

jaunak ez zela zehaztu dio Idazkariak ondasun horien erregistroa berak bakarrik egin zuelako, inori kontsultatu gabe.

Jarraian, alkateak hartu du hitza. Kontu-hartzailearen txostena ikusi du baina zalantza batzuk dituela esan du. Sozietate publikoen barruko kontrolari buruzko Tokiko Ogasunen Legearen 213. artikulua aipatu da baina, kasu honetan ez da kontu-hartzailetzara iritsi ez diren 2005eko bi fakturari buruz informatu eta ez da Udalaren kontabilitatean jaso eta jaso behar ote ziren galdetu du.

Beste galdera bat: pilotalekuari eta BEZari buruz, zergatik ez zen BEZ hori aitortu? Zergatik iritsi gara 2008ra ordaindu gabe? Auditoriak dio BEZa ondasuna ematen den unean ordaintzen dela, hau da, 2005eko otsailaren 7an. Inork ez du erantzuten zergatik ez zen faktura bidali ondasuna inskribatu zenean. Hutsegina bat dago.

Juan Ramon Larrañaga jaunak hasieratik eskatutako informazio guztia emateko prest egon dela erantzun du. Galdera hori gaur hemen egiteak harritu egin diola esan du. Esandakoa berresten du: herriak erabiltzen duen ondasuna dago, plaza, eta kudeaketa ekonomikoa milimetrora egin zen. Legearen barruan BEZ hori ez ordaintzeko formula bat ari ziren negoziatzen eta Ogasun sailari galdetu zitzaion hori nola egin zitekeen. Baina Idazkariak orube hori erregistratu egin zuen. Horrela arazoa sortu bazen, konpon dezala arazoa sortu zuenak.

Alkateak kontu-hartzailearen txostena orain duela eta horregatik galdetzen duela orain erantzun du. Ez da erantzun zergatik ez zen 2005. urtean BEZ hori ordaindu. Arazo hori hutsegina batean dago eta 2005etik hona zorretan gaude Ogasun sailarekin. Kontu-hartzaileak bere txostenean Herrigintzaren konponketa 500.000 euro direla esan du.

Segidan, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du berriro hitza. Gaia desbideratzen ari dela esan du. Bere eginbeharra ondasunak inskribatzea zela esan du eta horrela egin zuen eta ondo egin zen hori, erregistratzaileak horrela egin zuelako. Izan ere, pilotalekuaz gain, gainerako ondasun guztiak inskribatu ziren ziurtagiri berdinarekin. Zorra atzeratzea erabaki zen baina hori ez zen zuzenena.

hizo sólo.

Toma la palabra el Alcalde. Se remite al informe del interventor, pero tiene algunas dudas. Hace referencia al artículo 213 de la Ley de Haciendas Locales sobre el control interno de las sociedades públicas, por lo menos en este caso no se ha informado, por ejemplo, las dos facturas del 2005 no han llegado a esta intervención y no han entrado en la contabilidad del Ayuntamiento y si debe de quedar reflejado.

Otra pregunta, en lo que respecta al frontón y el IVA, ¿por qué no se declaró ese IVA, por qué se ha llegado a 2008 sin pagar? La auditoria dice que el IVA se devenga en el momento de entrega del bien, es decir, 7 de febrero de 2005. Nadie contesta porqué no se remitió la factura cuando se inscribió el bien. Hay una omisión.

Replica Juan Ramón Larrañaga que desde el principio ha estado abierto a dar toda la información que se le pida. Le sorprende que se le haga la pregunta hoy. Insiste en lo que ha dicho, hay un bien que disfruta todo el pueblo, la Plaza, la gestión económica fue al milímetro. Se estaba negociando dentro de la legalidad una fórmula para no pagar ese IVA, y se habló con el Departamento de Hacienda para ver cómo se podía hacer. Se estaban barajando varias formulas. Lo que ocurrió es que el Secretario registró el solar. Si así se genera un problema, que lo arregle quien lo generó.

El Alcalde replica que el informe del interventor lo tiene ahora y por eso pregunta ahora. No se me ha contestado porqué no se pagó en el 2005 ese IVA. Este problema se intenta diferir con la omisión, desde el 2005 estamos incurriendo en deuda con Hacienda. El interventor en su informe dice que la solución a Herrigintza pasa por unos 500.000 euros.

Vuelve a tomar la palabra Iñaki Sánchez, opina que se desvía la atención, su deber era inscribir los bienes y así se hizo, y se inscribió bien ya que así lo hizo el registrador. De hecho, no sólo se inscribió el frontón, con el mismo certificado se inscribieron todos los bienes. Se decidió diferir la deuda pero eso no es lo correcto.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2008/06/25



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

25/06/2008

Juan Ramon Larrañaga zinegotziak kontu-hartzailearen txostenean aurreko idazkariaren aldetik axolagabekeria egon zela irakurtzen dela esan du. Segidan, eztabaida sortu da Sanchez jaunaren eta Larrañaga jaunaren artean.

Alkate jaunak eztabaida moztu eta bozketa egitea eskatu du. Eta hauxe izan da bozketaren emaitza: aldeko 10 boto eta 3 abstentzio (PSE-EE taldeko 2 zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia).

ALKATETZA:

4.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Alkate jaunak aipatu dekretuak banatu direla adierazi du.

Segidan Juan Ramon Larrañaga zinegotziak hartu du hitza. Gizarte-Zentroko tabernaren kudeaketa iragarkirik jarri gabe zinegotzi baten emazteari eman zaiola jakin dutela esan du.

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak edonork ikus dezakeela espediente eta bideratu den prozesua hor ikus daitekeela erantzun du. Prozesu hori teknikariek bideratu dutela eta berak hortik kanpo egon dela dio. Orain arte defizitarioa den eta inork hartu nahi ez zuen zerbitzu bat ematea lortu da. Prozedura negoziatua bideratu da eta eskaintza bakarra aurkeztu da. Gauzak ondo egin dira.

Jarraian, eztabaida sortu da Juan Ramon Larrañaga eta Erramun Uribeetxeberria zinegotzien artean.

Alkateak eskatuta, Idazkariak prozedura negoziatua bideratu dela eta prozedura hori erabat legala dela erantzun du. Tabernaren zerbitzua esleitzeko dekretua Alkate jaunak sinatu zuen eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia prozesutik kanpo egon da une oro.

5. Eskariak eta galderak.

Ez da izan ez eskaerarik, ez galderarik.

Juan Ramón Larrañaga insiste que del informe del interventor se desprende una negligencia del anterior secretario. A continuación se produce un cruce dialéctico entre el Sr. Sánchez y el Sr. Larrañaga.

El Alcalde corta la discusión y pide que se proceda la votación. Se aprueba la cuenta general con 10 votos a favor y 3 abstenciones (2 del PSE-EE y uno del Concejal de Ezker Batua Berdeak).

ALCALDIA:

4.- Dar cuenta de los decretos dictados.

Toma la palabra el Alcalde para decir que ya se han repartido los decretos.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Hemos tenido conocimiento de que se adjudicado la gestión del Bar del Centro a la mujer de uno de los concejales sin que haya habido ningún anuncio.

Contesta Erramun Uribeetxeberria que todos tienen acceso al expediente y ahí se verá todo el proceso que se ha llevado, que han llevado los técnicos, porque él se ha mantenido al margen. Se ha dado servicio a un bar que es deficitario hasta este momento y que no ha querido cogerlo nadie. Se ha seguido el procedimiento negociado y sólo ha habido una oferta. Las cosas se han hecho bien.

Se produce un cruce dialéctico entre Juan Ramón Larrañaga y Erramun Uribeetxeberria.

A requerimiento del Alcalde, el Secretario contesta que se han seguido los trámites del procedimiento negociado, dicho procedimiento es totalmente legal. El decreto de adjudicación lo dictó el Alcalde y el Concejal de Servicios Sociales no ha intervenido.

5. Ruegos y preguntas.

No ha habido ni ruegos ni preguntas.

<p style="text-align: center;">UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA</p> <p style="text-align: center;">2008/06/25</p>	 <p style="text-align: center;">LEGAZPIKO UDALA</p>	<p style="text-align: center;">ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL</p> <p style="text-align: center;">25/06/2008</p>
--	---	---

Alkateak, arratsaldeko 20:40 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezten akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 40 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau (e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día :</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p style="text-align: center;">Jon Mikel Garagarza Roteta Idazkaria</p>	<p style="text-align: center;">Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>